

BAGERAREN BULETINA

bagera

Donostiako
Euskaltzaleen Elkarte

ABENDUA 2020



BAGERAREN JARDUNALDIA

BIDEOAK IKUSGAI

Azaroaren 14an Bageraren jardunaldia antolatu genuen San Telmo Museoan "Euskararen diskurtsoak. Zaharrak berri?" izenburupean. Kike Amonarriz Gorria (Euskal filologian lizentziatutako soziolinguista), Jone Miren Hernandez Garcia (Gizarte antropologia irakaslea) eta Miren Artetxe Sarasola (bertsolaria eta ikerlaria) izan ziren hizlari gonbidatuak. Moderatzailea Lander Arbelaiz kazetaria izan zen.

Hitzartzeak eta mahai ingurua ikusgai dituzu [bageraren webgunean](#).

ABENDUAREN 5EAN

MINTZODROMOA ONLINE

Mintzodromoarekin Euskaraldiari amaiera ezin hobea emango diogu! Abenduaren 5ean, internet bidez elkartuko gara. Izan ere, Euskaraldian parte hartuko dugu Mintzalagunok. Urte guztian zehar gure Mintzalagun taldeak Arigune dira. [Parte hartzeko prest?](#)





DISNEY PLUS EUSKARAZ

Disney Plus plataforma berria jarri zuten martxan martxoan. Disneyren ekoizpenak Euskal Herriko zinema aretoetan euskaraz eskaintzeko, nahiz Disney+ plataforma euskaraz eskaintzeko, sinadura bilketa bat jarri da abian. [Sinatzera animatuko?](#)

ZINE FORUMA

Dilili Parisen



Jatorrizko izenburua: Dilili À Paris. Urtea: 2018. Zuzendaria: Michel Ocelot. Gidoia: Michel Ocelot. Herrialdea: Frantzia. Gaia: 1910eko hamarkadan giratutako filma/fantasia eta misterioa. Iraupena: 95 min. Jatorrizko

Jatorrizko hizkuntza: Frantsesa / AZPITITULUA: Euskaraz

Dinamizatzailea: Ander Gisasola

Abenduak 17 | 17:00 | Lugaritz Kultur Etxea



FILMAZPIT

bagera

Donostia

Donostia

Donostia

Abenduaren 17an.

17:00etan, Lugaritz Kultur Etxean Bageraren Zineforumean "Dilili Parisen" ikusteko aukera izango dugu. Dilili Parisen 2018ko Michel Ocelot frantziar zinema zuzendariaren marrazki biziduneko filma da.

Dililik, Kaledonia Berriko neskatoak, bere lagun banatzailearen laguntza du Parisen, Belle Époque garaian, gertatzen ari diren neska gazteen bahiketa misteriotsuak argitzeko. Bere ikerketa-lanetan ohiz kanpoko zenbait pertsonaia aurkituko ditu eta argibide batzuk emango dizkiote. Moderatzaile lanetan Ander Gisasola izango dugu.

BIKOGRAFIK SAIOA

Abenduko bikografiak saioan, Tessa Andonigi (aktorea) eta Kattalin Miner (kazetari, idazle eta ekintzaile feminista) elkarriketatuko ditugu Tobacco Days liburu-dendan. Saioa ikusgai egongo da Abenduaren 18an bageraren Youtubeko kanalean 18:30etik aurrera eta 22:00etan Hamaika telebistan.

BIKOGRAFIK

Bi ibilbide elkarriketan



Kattalin Miner



Tessa Andonegi

MODERATZAILEA: Maite Bidarte